

## Jon Hoyos Iruarrizaga



Finantza Ekonomia eta Kontabilitatea arloko Unibertsitateko Irakasle Atxikia Finantza Ekonomia II sailean (UPV/EHU). Ekonomia eta Enpresa Zientzietan Doktore 2013. urtean, **"Financiación del proceso start-up: Un doble enfoque business angel-empresedor" izeneko tesia defendatu ondoren**. Egun, UPV/EHUko Enpresa Sorkuntza eta Zuzendaritza Masterreko (MBAe3) zuzendarikide da (<http://www.ehu.eus/es/web/ieae/mbae3>).

Jorratu dituen ikerketa eta ezagutza arlo nagusiak ekintzailtzari eta enpresen sorkuntzari lotuta daude, oinarri teknologikoko enpresa berrien finantzazioaren arloari zehazki. GEM (Global Entrepreneurship Monitor) nazioarteko ikerketa partzuergoan parte hartzen du ikertzaile gisa eta GEM Euskadi erkidego mailako taldeko kide da 2006tik. Lurralde honetako ekintzailtza jarduera neurtzen duen urteko txostena argitaratzeaz arduratzen da (<http://www.gem-spain.com/>).

Egun, graduondoko irakaslea da ondoko masterretan: *Finantzak eta Finantza Zuzendaritza UPV/EHUko Unibertsitate Masterra* (finantzazio iturri ezberdinen eta arrisku kapitalaren inguruko modulua); *UPV/EHUko Aktuariatza eta Finantza Zientziak Unibertsitate Masterra* (enpresen balorazioari buruzko modulua); *MBA Executive - Enpresen Zuzendaritza eta Kudeaketako Masterra* (enpresa berrien finantza plangintzari buruzko modulua); *MBAe3 Enpresa Sorkuntza eta Zuzendaritza Masterra* (ekintzailtza eta finantza plangintzaren arlorako finantzazio iturriari buruzko modulua); eta *Ikerketa Biomedikoa Unibertsitate Masterra* (oinarri teknologikoko enpresen sorkuntzari buruzko modulua).

Ekintzailtzaren eta finantzazioaren inguruko artikulu eta liburu ezberdinak argitaratu ditu. Bere ikerlanen emaitzak ondoko argitalpenetan argitaratuak izan dira: *International Small Business Journal*, *International Journal of Human Resource Management*, *Investigaciones Regionales* edo **Cuadernos de Gestión**, besteak beste.

[\(+ informazio gehiago\)](#)